

1.000.000.000.000.000.000.000.000

BENJI FRANKLIN

KID ABERATS AZKARRA



DIRUA
EGIN

(eta super espazio-ontzi demasakoak!)

RAYMOND BEAN

desclée

BENJI FRANKLIN

KID ABERATS AZKARRA



DIRUA EGIN

(eta super espazio-ontzi demasakoak!)

egilea
Raymond Bean

ilustrazioak
Matthew Vimislik

itzulpena
Igone Menika Larrinaga



Aurkibidea

1. ATALA	
Asteroideak.....	8
2. ATALA	
Arazo potoloa.....	16
3. ATALA	
Espaziotik kanpo.....	24
4. ATALA	
Estilo handiko misioa.....	31
5. ATALA	
Amets bat hegan egiten.....	38
6. ATALA	
Asteroideko sarea.....	45
7. ATALA	
Ezpaziorako jantziak.....	54
8. ATALA	
Zero grabitatea.....	65
9. ATALA	
Ondo harrapatuta!.....	70
10. ATALA	
Etorkizun oparoa.....	77



SARRERA

Benji Franklin dut izena!

Jendeari denbora irabazteko aitzakia bikainak asmatzen laguntzen dion software aplikazio bat asmatu dut, eta, horri esker, hamabi urterekin munduko aberatsik gazteena, milioiduna, bihurtu naiz; bueno, hobeto esanda, *pilamilioiduna!*



Hala ere, laster konturatu nintzen bizitzan dena ez dela dirua. Beraz, asmatutakoarekin irabazitako sosak ingurukoei laguntzeko erabiltzea erabaki nuen; esaterako, mundua dinosauro hiltzaileetatik askatzeko, espazio-ontzi superrindartsuak egiteko, edota itsasorik zakarrenetarako urrezko urpeko-ontzi sendo bat eraikitzeko. Beno, urpeko-ontzi bat... edo bi ere bai!

Hona hemen ezagutu beharko zenituzkeen pertsona batzuk:

AITA: Tramankulu bitxi eta bakanak asmatzea gustatzen zaio aitari, eta orduak ematen ditu gure tailer-laborategian, bata eta bestea probatzen. Orbitan den zaintza satellite bat, eta itsasoan galdutako marinelen erreskaterako jantzi magnetikoa izan dira aitaren azken proiektuak. Horrez gainera, jakin-min handiz entzuten ditu nire ideiak ere.



AMA: Besteengan beragan baino lehenago pentsatzen du beti amak. Gobernuz kanpoko erakunde

batean, Elikagai Bankuan egiten du lan boluntario gisa; eta beti irakatsi izan dit oso garrantzitsua dela lagun hurkoari laguntzea; aberasgarri eta dibertigarria ere badela, gainera. Landetxe bat ere gobernatzen du (nik erosi nion).



SNOW PROFESOREA: Klonazioaren ganean, klima-aldaketaz, nano-robotei eta hondamendi bilakatu daitekeen guztiari buruz, den-dena daki *profesore eroak*. Orintsu, mundua Troodon dinosauroetatik salbatzen lagundu nion nik!



Horrelaxe, bada.

Ongi da, salba dezagun mundua... berriz ere!



1. ATALA

Asteroideak

Hurrengo goizean, gure tailerrean nengoen, sateliteak bidalitako datuak jasotzen. Aitak traje magnetikoari ekin zion berriz ere. Gailu magnetikoak aldaratu, eta berak asmatutako segurtasun sistemak prest zirudien benetako proba bat egiteko. Hirian ezagun zuen ontzi kapitain batek baiezkoa eman zion proba bere eskifaiarekin egiteko. Goiz hartan kapitainak tailerrera ekarri zion ontzia, eta aita sistema berria ontzian zehar ezartzen ari zen.

Eta hartan geundela, bat-batean ikusi nuen...

Asteroide bat agertu zen sateliteak bidalitako datuetan. Asteroide potoloa zen, eta Lurraren kontra talka egiteko bidean zetorren!

—Aita, uste dut, hemen jaso dudan honi begiratu beharko zeniokeela —esan nuen, bihotza taupada bizian neukala.

Ontzi barruan zebilen, giltza ingelesa batekin zerbait lotu nahian. —Orain ezin dut ba, Benji. Berri onak ala txarrak dira? —galdetu zidan.



—Biak –esan nion.

—Zer da ba? Zerbaitek orbitaz kanpo utziko duela gure satelitea? –galdetu zuen.

—Ez. Eta hain justu hori da berri onetariko bat –esan nion—. Berri txarrak dira... beharbada, orbitaz kanpo beste gauza bat utziko duela. Gure planeta OSOA!!!

Aita oso-oso-oso ordenatua da. Gauza bakoitzak bere lekua du, eta den-denak ipintzen ditu dagokien tokian. Hainbeste ze, asteroide bat abiada bizian, gure planetaren kontra talka egiteko zorian zegoela jakinda ere, berak giltza ingelesa hartu eta, ezertan hasi baino lehen, erreminten kutxan gorde zuen berriz ere. Desesperatzekoa! Erremintak lurrera bota, eta narrasa izateko uneren bat bazen, orduantxe zen ba!

—Zein da beste berri ona? –galdetu zidan.

—Beharbada, gelditu ahal izango dugula –esan nion.

—Benji, asteroidea ikaragarritzko abidan dator Lurrerantz. Ez dut uste ezer egin ahal izango dugunik –esan zuen, ezkor.

—Nire kalkuluen arabera, asteroide honek hirurogei egun barru egingo du talka –azaldu nuen.

—Orduan, ez gaitezen izutu oraindik –esan zuen aitak—. Lehenago ere ikusi izan dugu espazio-zaborra talka egiteko bidean zetorrela, baina, halako batean, bat-batean norabidea aldatu eta beste nonbaitera egiten duela. Eta orain, Benji, berandu egiten ari zaizu. Zure eskolako autobusa iristear da, eta ez du norabidea aldatuko.

—Aita! Nola esaten didazu eskolara joan behar dudala, esan dizudana esan eta gero? Antza denez, ez didazu ondo entzun 'planeta OSOA' joko duela esan dizudanean, ezta? –errepikatu nion—. Asteroidearen ibilbidea jarraitu behar dut, sateliteko datuak jaso, eta norbaiti bidali, guri laguntzeko! Horrela, agian, laser-kanoi bat erosi dezaket... edo misil-jaurtitzailerik handi bat... edo futbol zelai baten neurriko titaniozko tiragoma bat, edo...

—Benji, seigarren mailan zaude –esan zuen aitak—. Une honetan, munduak jakingo du irauten zu gabe. Ez zara jarraipen-satelite bat duen eta hori ikusiko duen pertsona bakarra. Ondo joango da dena, lasai.

Jakina, ez nengoen ados, baina aitak ni etxean geratzen uzteko modurik ez nuen aurkitu.

\$\$\$